

no era, como lo ha sido siempre, el amor más entusiasta y más profundo á su independencia y á sus tradicionales instituciones, lo cual, unido al sentimiento de la justicia de su causa de que se hallaba penetrado, constituía la dura roca contra la cual se habian de estrellar todos los proyectos, todas las aspiraciones y todas las lisonjeras ilusiones que el inexperto rey D. Alfonso XI de Castilla abrigara en su imaginacion fogosa sobre la dominacion de Bizcaya, como se estrellaron anteriormente los proyectos ambiciosos de cuantos conquistadores acariciaron iguales propósitos.

Y ahora pasaremos á ocuparnos del punto sustancial y concreto que determina el epígrafe ó título que encabeza este estudio.

GERVASIO OLIDEN.

(Se continuará.)

I R A K U R G A Y A . ¹

Gure asahak beti umant
ala Kantabriyan nun Erroman.

Illun dago guztiya Erniyon. Illun zeruba, goibel eta izarrik gabe. Illun lurra, ez ostoa, ez lorea, ez lurriñ. Eta ingurubetako baso, oyartzun eta landak baño illunago, Kantabriyatarren agintari ausarditsubaren anima.

Guda-gizonak dabilta, batetik bestera, isilka mintzatubaz. Andre eta aurrak berriz, zer dan igaro dana, eziñ jakiñez.

Noizian beñ, irteten da agintariaren chabola edo bordatik guda-riyen bat; zeña abiyatzen dan jausika, amilduba bezela, goitik beera,

(1) Los hechos que sirven de argumento á esta leyenda, están inspirados en la que, con el título de Hirnio, escribió el distinguido literato guipuzcoano don Juan V. Araquistain, de cuyas preciosas *Tradiciones Basco-Cántabras* forma parte. (N. del A.)

iñori ezer esan gabe; iristen da beeko errekarra, eta gero, etsai Erromatarren artetik barrena, galtzen da Aya-mendiko baso-marduletan.

Illunabarrean irazekitzen dute su aundi distiari bat Erniyoko tontorrean, eta andik piskabatera, berez bezela, pistutzen dira ingurubetako mendi muturrak.

Urrengo egunean, eta urrengo eta urrengoetan, iristen dira ingurubetako anayak, Lartaunekin batzarre edo billera guztiekiko bat izatera.

¿Baña, zergatik dago illun Lartaun? zertara dator aitz gorri oye-tara ainbeste eta ainbeste guda-gizon, ez bada Erniyon zer janik iñorentzat? Eta azkenik; ¿nola uzten du Erromatarrak ainbeste jende, bere tartetik barrena, Erniyora igotzen?

Oktabianok egin diyo mandatu Lartauni, ez dubela odol geiago isuri nai alperrik, eta, kantabritarrak nai badute, egingo dituztela iru jatzarre edo borroka, bakoitzean eun euskaldun beste eun Erromatarren kontra; eta bitan Erromatarrak garaitu geratzen badira, izango dirala Kantabriako nagusi, beste ingurubetako landetan diran bezela; baña euskaldun edo kantabriyatarrak garaitzen badituzte Erromakoak bi jatzarretan, bai eta ere, izango dirala ordubezkerok, Erniyo eta inguruko beren mendien jaun eta jabe; eta Erromatarren lagun aurre-ronzko. Jatzarre oyen berdintasun oberako, izango dala, kantabriyatarrak ala nai badute, aurrenekoa Kantabriyan, bigarrena Erroman, eta irugarrena, bearra bada, Iberiako, Oktabiano eta Lartaunek aukeratu-ko duten, lekuben batian.

Berri oyeak jakin diranerako Erniyon, gizon guztiyak, pozez beterik, beren ausardiyan iñor berak bezin gogorrik danik uste gabe, inguratzen dute Lartaun, eskatuaz: esateko, bere beriala, Erromatarrari ondo dala, eta prest dirala, esaten duben bezela, burrukatzeko; baña Lartaunek, naiz ez jakin zer dan beldurra, oso goibel dago, eta ez du bakarrik ezer erabaki nai, esanaz: ez dakiyela etorkizunaren berri, eta gauza izugarriya izango litzakeala Erromatarrak nolabait garaitu irte-tia bi jatzarretan. Orregatik, nai dubela bildu batzarre guztiekikoa eta an ala erabakitzen bada, bera juango dala denen aurrean, pozaren pozez, garaitu edo illtzera. Batzarre au biltzeko, gaztigatzen diote, baso eta landetan sakabanatuta dauden, anayeri; Erromatarrari esanez, erantzungo diotela urrengo illargi berrian, bere anayen iritziya entzunik.

Erromatarrak nai du ichogon; egun batetik bestera ari dira biltzen ingurubetako anayak, batzarrean erabakitzeko egin bear dana. Azke-

nik, guztiyak Erniyon bildurik, jesten dira Zelatungo zelayetara, aipatutako egunean batzarra egitera. An, lendabiziko iſkamilla iſilerazirik, asten da Lartaun, denen erdian zubaitz baten gañean eserita, Erromatarren mandatuba jakiñerazten, baña beriala denen oyubak isilerazten dute esanaz:—Ongi da; ongi da; esan Erromatarrei bayetz... Nai du mintzo Lartaunek... baña alperrik.

—Azkar, azkar, esan bayetz; ez dediñ damuturik atzera biurtu Erromatarra.

Nai du osterera ere iſkamill ura iſilerazi Lartaunek, bere jendea-ri esateko, zentzuz erabaki bear dan kontuba dala ura; baña ikusirik alperrik ari dala, eta bere anayen berotasun eta ausardiyarekin, oso pozturik; bera ere alchatzen da eserlekitik eta igorik zubaitzaren gañera, asten da besteen gañeko oyubakiñ, esaten, bere aizkora zorrotzari burubaren inguruban, chimista dirudiyela, jirak emanaz: —Kantabriya jatzarreatatik; kantabriya jatzarreatatik.

Denak eranzuten diote:—bai, bai, kantabritarrak jatzarragatik; guztiok jatzarragatik. Eta pozaren pozez, beren agintaria aidean jasorik, biurtzen dira Erniyon gora esanez bata besteari bidean:

—Erotu zayote Erromatarreri; ¡Zer! eun, eun gureen kontra; bat bati, balirake berreun euni, bi bati, baña ez, ala ere gu izango giñake nagusi eta garaitsu; baña bat bati, ez dago beldurraren izpirik. Zaude, zaude lasai gure lur maitea; etzaitu ez oiñperatuko, berriz ere, Erromatar madarikatubak. Beti izango zera lokabe, libre, bai lokabe eta nagusi Erniyon, arranoa aidean, legoia lurrean eta gure Jainkoa alde guztietan dan bezela.....

Onela mintzatzen dira guztiak; emakume eta aurrak, zarrak eta gazteak; bada ez dute uste iñon jayotzen danik berak beziñ gizon gogor eta bulardetsurik; eta iñon baño guchiyago Erromatarren artean.

Gizon guztiak dabilta Lartaunen atzetik, leku eskatuz irureunen artean; denak nai dute izan Kantabryari zorioneko garaitz ura emango diotenetakoak. Denak nai dute lekua jatzarrerako; bada nai luteke garaitu edo ill beren dierriagatik; baña Lartaunek eranzuten diote: nai dubela guztien artean autatzia, zeñ diran onenak, bada oyen esku-betan jarri bear da Euskal-erriko lokabe eta zoriontasuna.

Atzenik, autatzen dira irureunak, guztiekiko batzarrean, autatutakoen poz oyuben artean, eta Lartaun bere iruren gudariyeikiñ jēsten da egunero Zelatungo zelayetara, jatzarrerako trebetu eta pizkortzera bere jendea.

II.

Denbora aurrera dijoa.... Iriñsten da jatzarrerako Lartaun eta Oktabianok autatutako egunaren bespera; gau artan ez da inor etzaten Erniyon, ez bada Lartaun bere eunakiñ; bada guztiyak nai diote zerbait prestatu bigaramoneko jatzarre eta burrukarako. Batak zorrozten du anayaren aizkora; besteak prestatzen du lagunaren dardarea, edo ematen dio beria gogorragoa dan usteen, amak konpontzen du semearen abarka, eta arrebak erretzen ditu basautz eta basurdeen biyotz eta errayak, egun sentian gosaldu eta indartu ditezen gudariyak.

Iriñsten da atzenik egun aundi ura... ¡Zer gorri agertzen dan eguzkia, sortaldeko odoyen artetik! bere suzko arnasarekiñ itsaso eta mendi, landa eta basoak ezkututzen dizkaten laño eta brumak ebaki eta desegiñ naian...

Baña jatzarrerako orduba iriñstera dijoa; Erromatarrak Agripa, Antistio eta Tauro buru dituztela ari-dira zabaltzen Errezill inguruko, berezitako zelayean, sortaldera begira. Iriñsten dira milla gizon Erniyotarretakoak, Lartaun buru dutela; aurrera dijoaz egun artarako autatutako eun gudariyak, aurretik koblakariyak daramazkitela, kantuz esanaz guda doñuban:

—¡Aurrera, aurrera! Aitorren semeak, mendi mutill pizkor eta bu-lardetsubak. Zorionekoak dierriak autatu dituben umantak. ¡Zorionekoak! ¡zorionekoak, milla eta milla bider zube! bada zuben eskubetan jartzen du inork garaitu gabeko asaben lauburu garbi distiaria; zuek zerate Lekobide, Uchin, Otsoal, Aztain, Lakazar, Belzun eta beste umant Euskaldunen seme egiyazkoak; beti purrukatu izan dezute Erromatarra bere zulo eta burni tartean, eta gaurbesozbeso, aoz ao, oso chikiturik, garaituko dezute Lartaun aundiari jarraiturik; bada da zuben aurrean, Aitzgorriko buzoka, arranoarenean beziñ ustela. ¡Aurrera! ¡anurrera mutillak!; garaitu edo ill, bada eriyotza da betiko zoriona bere dierriagatik erortzen danarentzat. Jainkoa zubeekin dago, asabak begira daude, bai eta ere zuben ama eta anayak. Gogor bada mutillak, gogor, garaitu edo ill...

Jendea prest da, kantabritarrak eskubiko amantar eta abarka kendu, belaun ortotsa lurreratu eta azkona eskuban arturik, prest daude dardarea aidean botatzeko Lartaunen guda-irrintziya entzun orduko, eta bai eta ere Erromatarrak, ezkerreko eskuko burni zabalarekiñ gorpuz

tza estali eta eskubian ezpata zorrotza estutubaz, etsayari gogor ekiteko.

Entzuten da bat batean, Lartaunen irrintzi eta Oktabianoren adar soñuba..... An dijoaz, aidean chistuka, dardarea, azkona eta ezpatak; jotzen dira batak bestearekin Erromatarren *gladiuns* eta euskaldunen aizkora zorrotzak, menditarren irrintzi izugarrien artean.

Ongi burrukatzen dira guztiak; bulardetsuak badira kantabritarrak, bai eta ere bulardetsu dira Augustok bere lauburua gordetzeko, berezi dituben Erromatarrak. Baña guztien artean zubaritza chara gaztean bezela, agertzen da, beti lekurik estu eta larrianean, Lartaunen gorputz liraiñ eta bulardetsuba bere ingurura eriotza eramanez; arren aizkora badabill ariñ jiraka, Erromatarren buruben aurrean, chimista, gau illunean bezela, disdiaritubaz iguzkitan; badabill batetik bestera, atzetik odol erreka izugarri bat daramala.

—¡Gogor! ¡gogor mutillak!—Garaitu edo ill; egiten du oyu nunitik.

Oyu au entzunik, badirudi berriro pištutzen dirala bere lagunak; bada erasotzen diote Erromatarrerri, berri berrirotik jatzarrean asiak bezela.

Lurra ill eta zauridunez estaliya dago, bi aldietatik asko dira eroritzen diranak, geiago ez chutitzeko; baña bi kantabritar orduko eroritzen dira iru Erromatar. Zenbat eta geiago iraun guda eta jatza-rra ark, orduban eta aundiyagoa da euskaldunen bular eta ausardiya, eškaš eta aulagua bizi diran Erromatar, pišken portitza. Badijuaz oyek, piškabanaka, atzera eta atzera; doi-doi gordetzen dituzte beren gorputzak euskaldunen aizkora odol-gosetsubetatik.

Azkenik, Lartaunek, chutik geratzen dan Erromatar bakarraren burua aizkoraz bi erdi egiñ, lurrera bota, eta bere bularren gañean oña jarriaz, oyu egin zuben, garailariyen irrintz pozkidazkoa, bere aizkora odolez betea gora jasoaz.

Milla eta milla aok eranzun ziyoten Erniyoko gañ eta isuri edo alapatetik beeko zuloko basoetaraño, pozaren pozez zoratu nayan; eta jechi ziran guztiak bizirik geratu ziran beren anai umantak laztandu eta besarkatzera, eta ill ziranen gorputzak obi bedeinkatubetan lurpetzera.

LARRETA-AZELAINGO JOAKIN.

(Bukatuko da).



IRAKURGAYA.



Gure asabak beti umant
ala Kantabriyan nun Erroman.

III.

Ez da iristen ez dan eperik, eta ala, badator Erromako disida eta jatzarrearentzat, Augustok aipatu eta Lartaunek ontzat arturik, autatu zan eguna.

Irichi dira Kantabroak Erromara. Bada amabost egun, arratsaldero jesten dirala Tiber-ko zelayetara, guda-gauzetan trebetu eta pizkortze-
ra. An daude jatzarre-egunaren besperan, beren mendi aldeko ipar lauso eta lañoeri begira.... Alde guzietatik ez dute ikusten ez bada etsayaren arpegi aaiakarra; ez ere entzuten, iseka baizik. Illun dau-
de, eta ez da arrigarri; bada egun asko da ez dutela beren lurreko albisterik. ¿Zeñek daki bat bakarrik biurtuko bada? Dakitena da, biga-
ramonean biar dutela burrukatu an, etsai tartean, beren anai, lagun eta gurasoen alayo, irrintz eta chalorik entzun gabe; iñoren babesik gabe, bakar-bakarrik leku arrotzean. Badakite Kantabriako Erromata-
rrak baño gogorragoak dirala; baño entzuten dute an, bigaramoneko jatzarrea egiteko, ekarri dituztela Erromara, munduko-guda gizonik bulardetsu eta gogorrenak; eta bai ere egin oyentzat, burnizko jantzi berri eta sendoak.... Denak prest dira beren odol eta biziya emateko; baño au ez da aski; biar dute garaitsu irten.... garaitu nolabait Erro-
matarra.

Igarotzen da gau ura; badator, eldu da azkenik eguna.... iristen da jatzarrerako aipatutako orduba... Badator jendea mordoka; eta an dijoaz Tiber-en alde batetik bestera, aletan sarturik.... badatoz eun Erromatarrak, jendearen chalo eta oyuben artean, ala aundi batean; eta bai ere eun Kantabroak beste batean, isil eta goibel; baño buruba atzaikarri alchiaz.... Badijoaz lurrera jauzitzen Erromatar eta Kanta-
broak; azken azkeneko geratzen da Lartaun bere alan... jasotzen du

aizkora zorrotza bi eskubaz, eta bitan arrekiñ irikirik, joaten da ala ibayaren ondora, berari lurrera jautzitzeko doi doi denbora emanik. Jende guztiak begiratzen diyo zertarako ori egin duben galdetubaz, eta Lartaunek, bere eskuko aizkorarekiñ, Erromatarren ala erakutsirik, eranzuten diote:

—Nereak eta ni biurtzeko aski degu ori...

Prestakuntz guztiyak bukatu dira; gudariyak aurrez aurre jarririk, prest daude bata besteari begira; Euskaldunak belaun ortotsa lurrera-tu eta Jaungoikoari otoitz egiñez, eta Erromatarrak, chut chutik, beren tallu gezurrezkoei oyuka. Asi da jatzarra, ez da entzuten gudariyen burni soñu, marru, iskamill eta karrasiya baizik.....

Gogorak dira guztiak, ez du iñork etsitzen; baña alperrik ari dira Kantabroak, eziñ dute puskatu etsayaren burni jantziya; bada aizkoren aboak akazten zaizkate arren gogortasunarekiñ. Alde guztietatik entzuten dira Erromatarren chalo eta oyubak. Alperrik ari dira mendi mutillak! ezin dute ezer egiñ.... Erromatarra badator aurrera.... badijoaz Euskaldunak banaka banaka erortzen, ez du batek ere ukatzen, ori ez, nayago dute ill ukatu baño....

¡Galtzera dijoaz jatzarra!... ¡jeziñ dute geiago!

Ikusten du au Laurantek; baña ez du etsitzen, eta igarririk nun ez duben burnirik etsayak, egiten die oyu bere anayeri:—Sabelean, sabelean jo gogor, sabelean; aurrera mutillak, aurrera.... Sartzen da denen aurretik Erromatarren erdiyan, lurra oyen odolez beteaz. Mutillak badijoaz, ausardi berriz beterik, beren agintariaren atzetik portizki, eta ara nun, isiltzen diran berriro Erromatarren chalo eta algarak.

Orañ badakite Kantabroak nun aizkoraz jo burnirik billatu gabe; eta oso puskatzen dute Erromatarren burnizko mordo izugarri ura, oyetako larogei ill otzik lurrean utzirik.

Orañ ez da entzuten Kantabroen kantugudaria besterik.... geratzen diran Erromatar piskak ukatzen dute, eta Euskaldunak, oyen garailari eta nagusi irtenik, iristen dute beren dierriaren lokabe eta zorientasuna.

¿Zergatik bada, ez da entzuten orañ Euskaldunen jolas eta irrintzirik, Erniyoko garaitzean bezela? Badirudi izandu dirala garaitubak berak; bada ez da ikusten negar malkoak baizik.—¿Zergatik dago zuben kopeta goibel eta triste, irichi badezute dierriaren zorion eta lokabea?—Lartaun, Erromatarren burniz zauriturik, iya ill dalako; ge-

ron biziya baño maiteago degun agintari eta anaya galtzera guazelako. Entzun ondo, entzun zér esaten digun:

—Nere koblakari eta osaba, nere anai guziak: agur, agur; illtze-ra nua. Banekiyen nik gaurko illargiya ez nubela bizirik ikusiko.... Baña ez da eriotza, ez, ez da illtzea, nere anayen artean, dierriaren lokabe eta zoriontasunagatik, azken arnasa ematea... da, pozaren pozez, biotza lertu eta bizitza obero, asaben ondora joatea.

—¡O! Kantabriya! nere Kantabri maitea, beti zuretzat bizitu naiz oraindaño, eta zure zoriontasunagatik illtzen naiz; ekatzu ordañetan lur piskabat, nere ezurak egon ditezen, beren obiyen, Usuaren-en onduran, aritz baten babes eta itzalean. Eta zu, nere biotzeko kutun kutuna, nere Usuaren anima, etzera geiago ibilliko, nerearen billa, animerraturik basoz baso. Banua, banua noizpait, beti betiko zure ondora. Bizi zaite dierriarentzat; eta eman zazu bere lokabeagatik zure bizia, esan zidazun... Zure naya egin det bukaeraraño, beti zure oroitza maitean zenzutuz. Atoz bada zu oraiñ, egatsen artean artu eta gorontz, zere ondora, zure maitearen anima eramatera....

—Zubek, nere anai maiteak, ez egon orrela goibel eta isillik; gora buru oyek, eta artzazute nere eskubetatik, gure anchifiako lau-burua. Lokabe eta garbirik eman zidan Kantabriyak eta len beziñ garbi eta osoa, biurtzen dizutet, iñon, atzerritarren aurrean, makurtu gabe. Eraman dezazute gure dierriko mendi maiteetara eta beti iraun dezala lokabe eta garaitsu.... Ez iñon bigundu atzerritarren aurrean; lenago ill guztiok gure jatorrizko lauburuba ukatu baño. Ez dedilla iñoiz egon beste lau-bururik Ernigoko gañean. Ez dezala iñoiz gizonak buruba makurtuerazo Aitor eta Lekobideren semeei. Ez iñoiz eskubiya lurreratu ez bada Jaungoikoaren aurrean....

—Eta orain, koblakari eta nere osaba, etzan nazazu lurrean, bada irichi da nere eriyotzako orduba.... etzan nazazu bai, nere dierr aldera begira eta doñutu zazu ill-kantzoa, Kantabroen agintariagatik....

Alperrik ari da koblakariya ezpañak mugitzen, ez da ezer entzuten; lertu nai du minduraz.... eta azkenik, asten da antsi eta negarrez.

¡Kantabro guztiak negarrez daude! ¡Malkoa zer dan ezdakiten gizon ayek negarrez!.....

Au da, au, egiazko umanten sariya; dierriaren malko eta betiko oroitza.